

JOSE ANTONIO LOIDI OROITUZ



ain idazle eta gizon zintzo bezain langile zen Jose Antonio Loidi Bizkarrondo, uste gabean joan zaigu aurtengo uztailaren 9an.

Errenterian jaioa zen 1916. urtean. Farmazia ikasketak Madrilén eta Santiagon egina zen, 1942an lizentziatu arte. 1943an lortu zuen Irunen Farmazia plaza eta geroztik bertan bizi izan zen.

Geroago, 1957an, Optika-Akustika ikasketak egin zituen Madrileko Unibertsitatean.

Gipuzkoako Colegio Oficial de Farmacéuticos en sartu zenetik, etenik gabe jarraitu zituen Bidasoako uren ikerketak. Oroigarri zaigu *Consejo General de Colegios Farmacéuticos de España* delakoak 1971an eman zion:


Posible aprovechamiento del agua del río Bidasoa para el abastecimiento de las ciudades de Irún y Fuenterrabía y Caminos de Santiago de Guipúzcoa zeritzan ikerlanagatik (1975ean erakunde berak argitaratua).

Handik zazpi urtera, Espainiako erakunde berak saritu zion *Farmakofitonimia* (1982) zeritzan euskarazko lana.

Bere ogibidezko lan horiez gainera, bizitzan zehar etenik gabe jarraitu zuen euskaraz eta euskarari buruzko lanetan ere.

Euskal literaturan ezaguna ez ezik oso nabarmena genuen, bai gaiaren aldetik zein hizkuntzaren aldetik. Nork ez du ezagutzen bere *Hamabost egun Urgain'en* deritzan eleberri bikaina? 1955. urtean argitara emen zuen Aingeru Irigaray zenaren Aintzin solasez.

Horrek non zioen, besteak beste: «Erakuspen eta irakaspen



Jose Antonio Loidi, duela 15 urteko irudi batean.



ederra ematen digu J.A. Loidi jaunak *Hamabost egun Urgain-en* bere liburuño polita argitaratuz. Ezta itzulikatua, bere burutik aterata baizik, eta Euskaltzaindiak eraginikako konkursoan aipamen berezi bat irabazi duena».

Eta hitzaurre horren bukaeran irakurleeri honako ohar hau luzatzen zioen: «Eskuetan duzun liburu unek orrialdetan barrena abiatzen bezain laister sumatuko duzu irakurlea, gorapilloa nola desegiten den ikusteko gutizia, eta lenbiziko liburua egiten duen norbaitendako ezta gauza apurra. Zorionak, Loidi jauna, eta segi aurrera».

Polizi eleberria da eta Gotzon Garatek Jakin aldizkarian (105. zenbakian) idatzi zuen «Euskal polizia eleberrien hasiera» zeritzan saio hartan zioen:

«Besteak beste polizia eleberriak izan behar dituen bi alderdi goragarri zituen Loidirenak: a) jakinmina piztea eta b) hizkuntza jatorra erabiltzea.

Eleberri honen ondotik, Loidiren sorketazko lanik, nik dakidanez, *Lana!!* zeritzan ipuin gogoangarri bat bada, *Egan* aldizkarian

argitaratua. Baina ordurako eginak zituen beste itzulpen lan batzuk ere.

Hara nola, J. Antonio Zinzunegi-ren *Itxaso...!*, Salvador Espriu katalan poetaren *Assaig de Cantic en el temple* (Abes-ekiñaldia Txadonean), R. Tagore-gandik *Txori galduak* eta J.M. Castillo Balbas-en *Argazkiak Irun atzo. Fotografías Irún ayer* (1988) zeritzana liburuari J. Caro Barojak gazteleraz egin zion hitzaurrea euskaratuz.

Baina Jose Antonioren beste liburu aipagarri bat dugu *Euskal Jaiak / Fiestas Euskaras* (1985), Manuel Lekuona zenaren hitzaurrez, Antoine D'Abbadiek 1881ean sortu zituen jai haien berriak laburki emanaz eta ondotik luze eta zehatz Irungoetan mugaturik, agiriak lekuko dituela agertuz.

Anitz lan argitaratu zituen euskaraz *Oarso, Zeruko Argia, Jakin, Oleri, Antzerti, Egan* eta beste zenbait aldizkarian. Bere lanak kontutan harturik, Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1957. urtean eta euskaltzain ohorezko 1998.ean.

Zenbait ekintzaren artean, Irungo ikastolen

AUTO - ESCUELA
ALZAGA
 A-1,A-2,B,C,D eta E
 KARNETEN TRAMITAZIOA


Uranzu, 27 - Tel. 943 62 16 27 - Fax: 943 62 33 95 IRUN
 Zuloaga, 12 - Tel. 943 64 16 23 - HONDARRIBIA
 C/ Fuenterrabia, s/n - Tel. 943 61 72 12 - IRUN

LA HERMANDAD
LA TEEXEA

Zuloaga Kalea, 7/g.
 Telf. 943 64 27 88
HONDARRIBIA

OTXOA
JANARIDENDA
 BARAZKI, FRUTA ETA
 HORRELAKOETAN
 AUKERA HANDIA

San Pedro, 43 - Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA



Loidik egindako lanik ezagunena dugu hau.

JUAN SAN MARTIN

sortzaileetarikoa bat genuen eta baita «Luis de Urantz» Kultur Taldearena ere.

Elkarte hau sortu zenetik buru egin izan du eta kultur talde horrek Irun eta Hondarribiko udalen laguntzaz 1984tik ateratzen den *Bidasoa Ikaskuntzen Aldizkaria - Boletín de Estudios del Bidasoa - Révue d'Études de la Bidassoa* deritzanaren zuzendari, non argitaratu zituen euskaraz eta gazteleraz zenbait lan.

Horrez gainera, Kutxak urtero antolatzen dituen Irun literatur sariketak sortu zirenetik epai-mahaikide izana zen. Era berean, Hondarribiko Udalak urtero egiten dituen haur eta gaztetxoentzako literatur sariketetan ere epai-mahaiko.

Beraz, inguru hauetako kulturgingintzagatik asko zor diogu. Goian bego!

KUTTUNA

SALON DE ESTETICA
HONDARRIBIA

ANE IRIDOY - SILVIA ORNOZ
C/ Zuloaga 6 - 1^o Dcha
Pida hora en el Telef. 64 57 29

ENDANEA

LORE ETA LANDARE
MINTEGIA

ENDANEA Baserría - Tel. 943 64 17 10 - 20280 HONDARRIBIA